



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailak 2**

**Vitoria-Gasteiz, 2 de julio de 2019**

## Lehendakaritza

### **60.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTU DIRA MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO PROIEKTUETARAKO**

Eusko Jaurlaritzak aurten 60.000€ko diru-laguntzak emango ditu Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak finantzatzeko. Diru-laguntza horien deialdia GOGORAREN, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren, ebazpenean jaso eta ebazpen hori gaur Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du.

Diru-laguntza hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek eta gainerako toki erakundeek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko bideratuta daude.

Diru-laguntza horiek eskatzeko epea ebazpen horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren biharamunetik aurrera kontatzen hasita eta aipatutako datatik hilabetera bukatuko da diru-laguntzak horiek eskatzeko aukera.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webguneko egoitza elektronikoan sartuta.

## Gobernantza eta Publiko eta Autogobernu

### IVAP-EK 35.000 EURO INBERTITUKO DITU EUSKALDIKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZAN

- **Laguntzen deialdi berri horrekin, Eusko Jaurlaritzak administrazio publikoko enplegatuen prestakuntza finantzatzearen aldeko apustua sendotzen du**

Eusko Jaurlaritzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ([IVAP](#)) bidez, aurtengo, 35.000 euro inbertituko ditu Euskadiko Administrazio Orokorreko erakunde autonomoetako enplegatuentzako prestakuntza-planak finantzatzen.

Finantzatutako prestakuntza-planek edo -programek, prestakuntza-eskaintzaz gainera, honako ekintzaren bat edo batzuk jaso ahalko ditu:

- Prestakuntza-edukiak diseinatzea eta/edo prestatzea.
- Ikaskuntza-sareak ezartzea, aldi baterakoak edo iraunkorrak.
- Irakaskuntzako materiala diseinatzea, prestatzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabiltzen den edozein euskarritan.
- Erakunde autonomoak garatutako prestakuntzaren inguruan aprobetxamenduaren, transferentziaren edo inpaktuaren ebaluazioarekin lotura duten ikasketak.

Laguntza horiek IVAPen "[2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko](#)"an sartzen dira eta aurtengo ekainean autonomia-erkidegoko administrazioen enplegatuen prestakuntza finantzatzeko onartu ziren 125.000 euroen osagarri dira. Deialdi honetako izapideak IVAPen webgune ofizialaren bidez eskatu, kontsultatu eta egin beharko dira: [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus).

### PRESTAKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA

Deialdi berri horren bidez, Eusko Jaurlaritzak, IVAPen bidez, eutsi egiten dio erakunde bakoitzaren prestakuntza-beharrei buruz aurretiaz eginiko azterlana edo diagnostikoa oinarri dituzten prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzearen eta sendotzearen aldeko apustuari.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### **2,2 MILIOI EURO KOSTALDEAN TOKI GARAPEN PARTE HARTZAILEKO PROIEKTUAK GAUZATZEKO**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak Gobernuari igorri dizkio, jakinean egon dadin, 2019ko ekitaldian toki garapen parte hartzaileko proiektuetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak. Itsas Garapen Elkartea arrantza sektoreko tokiko ekintzarako taldeari onartutako proiektuetarako laguntzak dira, eta Itsasoaren eta Arrantzaren 2014-2020 Europako Funtsaren esparruaren barruko arrantza guneen garapen jasangarrirako izango dira.

2019an, 2.232.500 euro bideratuko dira, guztira, laguntza programa hori finantzatzera. Era berean, 632.000 euro 2019ko ordainketa kredituak dira, eta 1.600.000,00 euro 2020rako konpromiso kredituak.

Itsas Garapen Elkartea izeneko Tokiko Ekintza Taldeak eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak 2017ko urtarrilaren 1ean sinatu zuten tokiko garapen parte hartzaileko estrategia honetarako hitzarmena, zeina udalerrri hauetan aplikatuko den: Bermeo, Mundaka, Ondarroa, Getaria, Mutriku, Berriatua, Elantxobe, Orio, Hondarribia, Pasaia, Zumaia, Lekeitio, Lemoiz, Zierbena, Santurtzi eta Donostiako arrantza portua.

Laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisikoak edo juridikoak, arrantzaleen kofradiak eta euren federazioak, arrantza sektoreko elkarte profesionalak eta euren federazioak, ekoizleen erakundeak eta euren elkarteak eta, halaber, bakarrik arrantzaleen kofradiez edota arrantza sektoreko elkarteaz osatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak. Laguntza eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO TREBAKUNTZA GUTXIKO GAZTE LANGABEEN GIZARTE- ETA LAN-AKTIBAZIORAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZEN INGURUKO 2019-2021EKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIARI

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **trebakuntza gutxiko gazte langabeen gizarte- eta lan-aktibaziorako** prestakuntza-ekintzen inguruko 2019-2021eko dirulaguntzen deialdiari. Deialdia Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak onetsi du, oinarrizko gaitasunetan, gaitasun sozio-pertsonaletan eta oinarrizko mailako gaitasun tekniko-profesionaletan prestatzeko ibilbideak sortuko dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko, prestakuntzaren hartzaile izango diren pertsonen garapen pertsonala eta gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko, bai eta 2. mailako profesionaltasun-egiaztagirietara jotzeko aukera izateko ere. Deialdiak 1.618.500,00 euro ditu.

**Beatriz Artolazabal** Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak zera esan du: “ekimena DBH egin ez duten eta, hainbat motibo tarteko, oinarrizko gaitasunik ez dutelako beren prestakuntzarekin jarraitzeko modurik ez duten trebakuntza gutxiko gazteei baino ez zaie zuzentzen. Deialdiaren bidez, **14 prestakuntza-ibilbide** finantzatu nahi dira: 8 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 2 Araban.

Artolazabal sailburuak honako hau azaldu du: “**900 eta 950 orduko bi bloketan**, hurrenez hurren, banatzen diren prestakuntza-ibilbideak dira. Honako hauek eratzen dituzte: 1. mailako profesionaltasun-egiaztagiriaren aurreko prestakuntza; 1. mailako profesionaltasun-egiaztagiriak; beste prestakuntza-modulu partzial egiaztagarri batzuk; aurretik aipatutako espezialitateak egiaztatzen direla bermatzen duten lan-zentroetan prestakuntza; eta zeharkako oinarrizko gaitasunekin lotutako oinarrizko prestakuntza.

Deialdira **1.618.500,00 €** bideratu dira; horietatik, 407.250,00 euro 2019ko ordainketa-kredituari dagozkio, 809.250,00 euro 2020ko konpromiso-kredituari eta 402.000,00 euro 2021eko konpromiso-kredituari.

#### Hartzaileak

Deialdiaren **erakunde onuradunak** pribatuak edo publikoak dira, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailen mendeko ez direnak, enplegurako prestakuntza-erakundeen erregistro autonomikoan edo Prestakuntza Erakundearen Estatuko Erregistroan egiaztatuta edo inskribatuta daudenak, eskatzen duten diru-laguntzaren helburu diren prestakuntza-proiektuen prestakuntza-ekintzei dagozkien prestakuntza-espezialitateak emateko.

Laguntzen **kolektibo hartzailea** honako hau da: gazte langabeak, 16 eta 25 urte bitartekoak, DBH ez dutenak eta 2. mailako profesionaltasun-egiaztagiriak egiteko sarbiderik ez dutenak, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan edo autonomia-mailako beste enplegu-zerbitzu publiko batean izena eman dutenak.

Hura emateko **prozedura** norgehiagoka izango da, eta ibilbide bakoitza bakarka balioetsiko da eta ekitaldi bakarrean ebatzi. Eskabideek eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatuta, ebaluazio-batzordeak deialdian ezarritako irizpideen arabera balioetsiko ditu.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO LANBIDEK TXANDA-KONTRATUEN LAGUNTZETARAKO EGIN DUEN DEIALDIARI

**Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Lanbidek txanda-kontratuaren laguntzearako 2019 ekitaldian egin duen deialdiari.** 1.000.000 € bideratuko dira deialdira. Hura emateko prozedura *ondoz ondoko norgehiagoka* izango da, eta dirulaguntzak eskakizunak betetzen dituzten eskabideei emango zaizkie, aurkezpen-hurrenkeraren arabera, harik eta funtsak agortu arte.

**Beatriz Artolazabal** sailburuak zehaztu duenez, “2019ko deialdirako **aurreikuspena da gorakada garrantzitsua** egotea, bai eskabide-kopuruan, bai aldekoen kopuruan. 1.000.000 €-ko aurrekontua dago, eta, horietatik, 600.000 € 2019ko aurrekontu arruntekoak dira eta 400.000 €, 2020rako konpromiso-aurrekontukoak”.

“2018an kontratatutako emakumeen ehunekoa % 23,91koa izan zela aintzat hartuta, 2019rako ehuneko hori % 30ekoa izatea aurreikusten da. Horrela, txanda-kontratuak formalizatzeko laguntzarako **128 eskabideri erantzun ahalko zaie**. 2018ko deialdian, 46 txanda-kontratu finantzatu ziren, eta 276.000 €-ko aurrekontua betearazi zen. 2018ko aurrekontua 1.000.000 €-koa izan zen”, esan du Artolazabalek.

Programa horren bidez, honako baldintza hauek betetzen dituzten kontratuak finantzatzen dira: enpresek 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako pertsonari egiten dieten **lanaldi osoko txanda-kontratu mugagabea** edo iraupen mugatukoa, baina iraupen mugatuaren kasuan konpromisoa jaso beharko da kontratua amaitzean edo lehenago mugagabe bilakatzeko; pertsona horiek Lanbiden egon beharko dute langabezian alta emanda, kontratua hasten denean; enpresarekin iraupen mugatuko kontratua hitzartuta izan behar dute eta, kasu horretan, enpresak, txanda-kontratuaz gainera, kontratazio gehigarria egin beharko du, 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako pertsona batekin aldi baterako kontratu hori amaitzeko gutxienez geratzen denaren denbora baliokidean; enpresan praktiketako kontratua edo prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua izan beharko dute hitzartuta eta txanda-kontratura igaro beharko dute kontratu edo lanaz kanpoko praktika horiek indarraldiaren barruan edo amaitu eta hurrengo egunean.

Halaber, **kontratu gehigarria** finantza daiteke, enpresan gertatzen diren erretiro partzialen ondorioz enpresan bertan dauden langileen txanda-kontratuak betetzeko prozeduren inguruko aurretiko akordioak egonez gero.

**Laguntza horien hartzailak dira, batetik, lanaldi osoko txanda-kontratu bidez kontratatzen diren 30 urtetik beherako langileak edo langabeak edo 45 urtetik gorakoak.** Kontratu horrek mugagabea izan beharko du hasieratik, edo, beranduen, txanda-kontratuaren eragin duen pertsonak erabateko erretiroa hartzen duenean. Bestetik, txanda-kontratuaren baten ondorioz, kontratu gehigarria sinatzen duten 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako langabeak.

Diru-laguntza **7.550 eurokoa** izango da, **kontratzen den pertsona bakoitzeko**. Kopuru hori % **10 areagotuko da, txanda-erreleboa hartzen duena emakumea bada.**

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ETA LANBIDEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI; HORREN BIDEZ, LAN-MERKATUAN SARTZEKO INFORMAZIO-SISTEMA GARATUKO DA

- **Unibertsitateko egresatuen hezkuntza- eta enplegu-politiken garapena**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **Lanbideren eta Mondragon Unibertsitatearen** artean unibertsitateko egresatuak enplegu-merkatuan txertatzeari eta horietan hezkuntza- eta enplegu-politiken garapenari buruzko informazio-sistema garatzeko laster sinatuko den **lankidetzaz-hitzarmenari**.

Beatriz Artolazabal sailburuak esan duenez: “Mondragon Unibertsitatea sentsibilizaztuta eta konprometitua dago goi-mailako irakaskuntza-zerbitzua ematen duen ingurunekeo gizarte-, ekonomia- eta kultura-beharrei erantzuteko betebeharrarekin, eta **goi-mailako kalitateko hezkuntza horretan bertako ikasleen prestakuntza integralean laguntzen du eta lan-munduan txertatzeko lanbide-prestakuntza ziurtatzen du**. Horretarako, ikasleen gizarteratzeari eta laneratzeari bide emateko irakaskuntza-baldintzak eta eskaintza osagarriak sustatzen ditu”.

“Globalizazioa eremu guztietan sartzen ari den aldaketa sakonak direla eta – joera ekonomikoak, lan-prozesuetako aldaketak, enpleguen edukikoak, lanbide-gaitasunetakoak, enpresa-kudeaketako ereduak, informazioaren eta komunikazioaren teknologien eraginak eta gizarte-, politika-, ingurumen-, teknologia-joerak, besteak beste–, errealitate hori ezagutu eta aurrea hartu behar zaio eta, gainera, erakundeen arteko elkarlana behar da, aldaketa horien garrantziarekin bat datorren erantzuna emateko”, esan du Artolazabalek.

“Mondragon Unibertsitateak parte hartzen duen gizarte-errealitateko informazio egokia behar du, antolamendu akademikorako, curriculumeko edukiak berritzeko eta titulazioen mapetan aldaketak berritzeko, edo egresatuei zuzendutako informazioko eta laneratzekeo zerbitzuen eskaintzarako”, esan du Enplegukeo eta Gizarte Politiketako sailburuak. “Lanbideri zenbait eginkizun esleitu zaizkio, besteak beste: enplegu-politika aktiboen bitartekaritza eta betearazpena kudeatzea, eta biek partekatzen dute hezkuntza-sistematik lan-merkatutarako trantsizioari behatzeko sistemaren garapenean sakontzeko ideia”.

“Horren harira sortu da berriro informazio espezializatuak eskuratzeko tresna horren beharra, Mondragon Unibertsitatekeo egresatuen laneratzea monitorizatuko duena eta, horretarako, hezkuntza-eskaintza eta -kudeaketaren eremuetan erabakiak orientatzeko ezagutza emango duena eta enplegu-politiken inguruko jarduketak sustatuko dituena. Jarduketa bat dagoeneko



Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzahitzarmenen bidez eginikoaren antzekoa da.

Hitzarmenaren helburua da inkestetan oinarritzen den informazio-sistema ezartzea; horren bidez, laneratzearen eta Mondragon Unibertsitateko egresatuek lan-merkatura egiten duten mugimenduaren ezaugarriak identifikatu ahalko dira, eta, halaber, egresatu horien kualifikaziorako eta enplegagarritasunerako hezkuntza- eta enplegu-politikak garatu ahalko dira. Horretarako, Lanbidek, urtero, laneratzeko inkesta bat egingo die Mondragon Unibertsitatean graduetakoko eta graduondoko tituluak lortu dituztenei. Promozio bakoitzak inkesta bakarra egingo du, eta titulazioa eskuratu eta hiru urtera inkesta egingo zaio berriro. Inkestak egresatuaren lan-jarduerarekin lotutako zenbait galdera ditu. Hitzarmenak ez du betebeharr ekonomikorik ekarriko alde batentzat ere.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO GERNIKAN LANBIDEREN BULEGO BERRIRAKO LOKALAK EROSTEARI

- **Don Tello kalean dago, eta egun Carmelo Etxegarain dagoena ordezkaturako du**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Gernikan Lanbideren bulego berrirako hiru lokal erosteko prozedurari. **Hiru lokal erosiko dira, elkarren ondoko hiru lokal, Gernikako Don Tello kalean;** guztira, 450 metro koadroko azalera izango dute, eta, guztira, 550.000 euro bideratuko dira.

**Beatriz Artolazabal** sailburuak esan duenez: “eragiketa Lanbiden hobekuntzarako eta eguneratzeko ekindako prozesuan sartzen da; espazio hobek eta irisgarritasun hobea izan nahi dira, arreta pertsonalizatua emateko eta langileentzat berentzat ere bai. Gaur egun Carmelo Etxegarai kaleko 8 zenbakian dagoen bulegoak zerbitzua emateari utziko dio, lokal berriak egokitzen direnean”.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNU KONTSEILUAK EUSKO JAURLARITZAK HOBETUZ LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIORAKO DITUEN ORDEZKARI BERRIAK IZENDATU DITU

Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzak Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundaziorako duen ordezkari berri izendatu du **Jon Uriarte**, eta bere ordezkari kide Iruñe Muguruza eta Marta Etxebarria. Hirurek ordezkatzeko dituzte Juan Ibarreche eta Ernesto Sainz Lanchares; haiek beren karguak utzi dituzte, eratu berri diren udal-gobernuetako talde berrietan sartu baitira.

Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa (Hobetuz) 1995ean sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan Etengabeko Prestakuntzako hiruko akordioa betetzeko; akordioa Eusko Jaurlaritzak, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek eta Confebask enpresa-elkarteak sinatu zuten, 1995eko irailaren 27an Euskal Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbideen arteko Akordioa sinatu ondoren.

### ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILEKO ORDEZKARI BERRIA HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO BATZAR NAGUSIAN ETA ZUZENDARITZA-BATZORDEAN

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak hala proposatuta, **Iruñe Muguruza** izendatu du Eusko Jaurlaritzaren ordezkari, *Haurreskolak* partzuergoko batzar nagusirako eta zuzendaritza-batzorderako, haur-eskolak eta hiru urtetik beherako asistentzia- eta hezkuntza-arreta kudeatzeko. Iruñe Muguruza Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaria da.

## Ogasun eta Ekonomia

### **EUSTAT-EK ETA INE-K GIZARTE BAZTERKETAREN ALORREAN SAKONDUKO DUTE, ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARRETARAKO EUSKADIKO ZENTROETAN ETA ZERBITZUETAN EGINGO DUTEN INKESTAREN BITARTEZ**

Estatua eta Euskadiko Autonomia Erkidegoa bat datoz gizarte bazterketa prozesuei buruzko ezagutza hobetzeko interesean. Hori dela eta, komenigarria da Euskadiko Autonomia Erkidegoko errealitate horri buruzko ikerketan jarduera publikoa koordinatzea.

Gizarte bazterketa prozesuen ezagupenean aurrera egitearen helburua da inkestarekin lortu nahi dena. Inkesta, etxerik gabeko pertsonen, dohainik edo diru-kopuru txiki bat ordainduta edo lanen bat egitearen truke, ostatu, jaten emate edo bestelako zerbitzuak eskaintzen dizkieten zentroein egongo da zuzenduta, eta xedea zentro horien ezaugarriak ezagutzea da, ematen dituzten prestazioak, zentroen arreta jasotzen duten pertsonak, finantzaketa iturriak, giza eta finantza baliabideak eta kalean aurrera daramaten esku-hartzea.

Ikerketa lana aurrera eramateko, Gobernu Kontseiluak Instituto Nacional de Estadística-ren eta Euskal Estatistika Erakundearen artean hitzarmena sinatzea onetsi du gaur, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan 2018an etxerik gabe egon diren pertsonen arreta ematen dieten zentroein eta zerbitzuein buruzko Inkesta egiteko.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, etxerik gabe egon diren pertsonen arreta ematen dieten zentroein eta zerbitzuein buruzko 2018ko Inkesta, INEk eman dituen espezifikazio metodologikoekin bat etorritik egingo da, Eustatekin adostuz, estatistikaren emaitzen sendotasuna Estatu osorako bermatzeko. Orain arte, 276 zentrotan egin dira kontsultak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan aztertu beharreko zentroen zerrendaren eguneratzea Eustatek egingo du. Eguneratze horretatik aurrera, INEk behin betiko zerrenda egingo du, eta bi erakundeek adostuko dute.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan egin beharreko galdetegia Estatu osoan egingo den galdetegi bera izango da, edukiari dagokionez, baina Eustatek bere eranskina gehitu ahal izango du, Euskadiko Autonomia Erkidegoari dagokion intereseko informazioa jasotzeko. Galdetegiak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, eta hitzarmena sinatu duten bi erakundeen anagrama gehituko da guztietan.

Euskadiko Autonomia Erkidego mailan ikerketa lan bakarra egingo da. Horrela, dagozkion estatistika planetan aurreikusitako helburuak betetzeko beharrezkoa den informazioa lortu ondoren, ez da bikoiztasunik egongo eragiketa estatistikoan eta, aldi berean, baliabide publikoak aurreztuko dira.

Euskadiko Autonomia Erkidegoari dagozkion behin betiko emaitzen hedapena bi erakundeek adosten duten bezala egingo da.

## Hezkuntza

### 26,4 MILIOI EURO 2019-2020 IKASTURTEKO UNIBERTSITATE-BEKETARAKO

- **2018-2019 ikasturtean 11.542 euskal ikasle izan dira unibertsitate-beken onuradun**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran onartu du 2019-2020 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako deia egiten duen agindua. Deialdi honetan, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aitortzeko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka ere jasotzen dira. Orotara, Hezkuntza Sailak 26.480.000 euro bideratzen ditu unibertsitate-beketarako, gorago aipaturiko hiru laguntza-lerroetan.

Beken deialdi hau Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten ikasleentzat da, 2019-2020 ikasturtean Autonomia Erkidego honetan edo Estatuaren gainontzeko tokietan kokatuta dagoen edozein zentrotan ondorengo ikasketak egin behar badituzte:

- Graduiko unibertsitate-titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitate ez-presentzialetan emandakoak
- Goi-mailako arte-ikasketak.

Deialdi honen bidez, jende askok du unibertsitate ikasketak edo goi-mailako bestelako ikasketak burutzeko aukera, egoera ekonomikoa horretarako oztopo izan gabe.

**1.- 2019-2020 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka: 26.260.000 euro**

Beka hainbat osagaitan zatituko da, unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteagatik dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuen arabera. Bekadun bakoitzari dagokion bekaren azken zenbatekoa zein den jakiteko, aplikagarriak zaizkion osagai guztiak batu beharko dira, honen guztiaren arabera: bekadunaren gorabehera pertsonala, familiarra, akademikoa zein ekonomikoa, eta osagai horien arteko bateraezintasun-erregimena. Bekaren osagaiak bi multzotan banatzen dira:

-Oinarrizko zenbatekoa; horren barruan honako hauek hartzen dira: Matrikularen prezio publikoa; Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa; Egoitzari lotutako oinarrizko zenbatekoa; Aprobetxamendu akademikoari lotutako oinarrizko zenbatekoa.

-Zenbateko osagarri aldakorra; horren barruan honako hauek: Ikaskuntzari laguntzeko prozesuari lotutako zenbateko osagarri aldakorra; eta Hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorra

2018-2019 ikasturte honetan, 11.542 euskal ikaslek eskuratu dute unibertsitateko beka orokorra.

2.- Beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, **mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak:** 100.000 euroko diru-kopurua

Diru-laguntza hauek ematen dira mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleek euren ikasketa-zentrora iristeko garraiobide publikoak, egokituak izanik ere, ezin badituzte erabili; edo garraiobide publikoak erabili ahal izan arren, beste pertsona baten laguntza behar badute. Azken 2018-2019 ikasturte honetan 10 unibertsitate ikaslek eskuratu dute laguntza hau Euskadin.

3.- **Bikaintasun akademikoko beka:** 120.000 euroko diru-kopurua.

Bikaintasun akademikoko beka etekin akademiko handia duten ikasleei zuzenduta daude. Ikasleek Euskadiko edo Estatuko unibertsitateetan matrikulatuta egon behar dute, gradu-ikasketak egiteko. Beka hauen helburua da, unibertsitateko ikasleen ikasketetan eta ikerketa-zereginetan bikaintasuna sustatzea, ikasle horien etekin akademikoa sarituz. Urtero 120 beka ematen dira modalitate honetan.

## Osasuna

**OSASUNAK, AURTEN, 2,6 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATU  
DITU EREMU KOMUNITARIOAN ADIKZIOAK PREBENITZEKO ETA  
OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEKO LAGUNTZETARA**

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi duen Aginduaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurtten **2.618.400 euro bidera ditzake, guztira, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko, ekipo teknikoak sortu eta mantentzeko, arriskuak eta kalteak prebenitu eta murrizteko proiektuak egiteko eta jarduketa-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko laguntzetara.**

Toki-eremuan eta osasun-arloaz bestelakoetatik egiten diren jarduketetan osasuna sustatzeko, Osasun Sailak laguntza horiek deitzen ditu, eta horien helburu orokorra da **2017-2021erako Euskadiko Adikzioen VII. Planeko** jarduketa-ardatzetan hoberen sartzen diren programak eta proiektuak mantentzea, behar berriak identifikatzea eta horiei erantzuna emango dieten proiektu berriak bultzatzea eta ekimenak hobetzen laguntzea.

Laguntza ekonomiko horiek, era berean, **2013-2020rako Osasun Planarekin** bat datoz, eta ildo nagusietako bat dira Euskadin adikzioen arloan garatutako lanean; bertan, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzeta eta hirugarren sektorearekiko eta kolektiboekiko elkarlana funtsezkoak dira.

**Eskabideak aurkezteko** epea datorren irailaren 13an amaituko da.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 203.000 EURO ONARTU DITU MUSIKA BULEGOA ERAKUNDEARENTZAT, EUSKAL MUSIKAREN ARLOA SUSTATU DEZAN**

- **Dirulaguntza honetan orain arte arloko elkarte ezberdinei eman zaizkien laguntza guztiak kontzentratu dira**

Gobernu Kontseiluak 203.000 euroko dirulaguntza bat onartu du, bere gaurko bileran, Euskal Herriko Musika Bulegoa (EHMBE) erakundearentzat, musika arloa bultzatzeko xedearekin egiten duen lana diruz laguntzeko. Musika Bulegoak arlo honetako elkarteei zuzenduriko laguntzak kontzentratzen dituen lehen aldia da. Aipatutako elkarteek adostutako erabakiaren ondorioz izan da berritasun hori eta EHMBE erakundearen lana sendotzea du helburu.

2015. urtean jaioa, Euskal Herriko Musika Bulegoa arlo honetako lankidetzaproiektu estrategikoa da eta euskal musika-jarduera sustatzea eta hobetzea du xede. Proiektuak bi helburu nagusi ditu: zerbitzuak eskaintzeaz gain arloko eragileentzako topagunea izango den espazio bat eraikitzea eta kalitatezko irudi bat igorriko duen marka eta euskarri banaz hornitzea euskal musikari. Interes orokorreko ekintza eta proiektuen garapena ahalbidetuko duen erreminta ere izan nahi du EHMBEK.

Euskal Herriko Musika Bulegoak garatzen dituen jarduerak ondoko jarduerardatzetan oinarrituta daude:

- Koordinazio eta zerbitzuak.
- Arlo barruko eztabaida.
- Etengabeko prestakuntza.
- Entzulegoak sentsibilizatzea eta prestatzea.
- Sustapena eta hedapena.
- Presentzia atzerrian.

Diru-laguntza berri honen bitartez Musikagilek (30.000 euro), Musikaririk (55.000 euro), MIEk (68.000 euro) eta Kultura Livek (50.000) orain arte jasotzen zituzten laguntzak zentralizatu ditu EHMBEK. Lau dirulaguntza izendun horien batuketaren baliokidea da aurten EHMBEK jasoko duen dirulaguntza.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 170.000 EURO INBERTITUKO DITU ARTXIBO PRIBATUEN ANTOLAKUNTZA, DIGITALIZAZIOA ETA HEDAPENA LAGUNTZEKO**

- **laz, 17 artxibo pribaturen hobekuntza diruz lagundu zen laguntza-ildo honen bitartez**

Eusko Jaurlaritzak artxibo pribatuak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntza berriak onartu ditu gaurko saioan. Deialdiak 170.000 euroko aurrekontua izango du aurten artxibo pribatuen hobekuntza eta funtsen digitalizazioa sustatzeko.

laz, laguntza-ildo honek 17 artxibo pribaturen hobekuntza babestu zuen; gehienek titularrak elkarteak, erlijio-ordenak eta fundazioak ziren. Deialdiak ondoko xedeak ditu:

- Artxibo historikoetako funtsen antolakuntzari edota beren artxibo-tratamenduari laguntzea.
- Aldez aurretik antolatuta eta datu-base batean azalduta dauden artxibo-funtsen digitalizazioa sustatzea. Proiektuek kontserbazio iraunkorreko artxibo digital bat sortu beharko dute, bai eta Euskadiko Artxibo Sistema Nazionaleko webgunean txertatuko den kopia digital bat ere. Aurkeztutako proiektuek deialdi honetan zehaztutako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK DIRULAGUNTZA GEHIGARRI BAT ONARTU DU GALTZAGORRI ELKARTEARENTZAT, EUSKARAZKO IRAKURZALETASUNA SUSTATZEN JARRAI DEZAN

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Saitetik aurten jasoko dituen dirulaguntzei esker 100 tailer eskaini ahal izango ditu EAEko eskoletan**

Eusko Jaurlaritzak 16.000 euroko dirulaguntza onartu du bere gaurko saioan Galtzagorri elkartearentzat, bere irakurketa-programa osatuko duten saio gehigarriak egin ditzan. Gaurko Gobernu Batzordean onartu den diru-kopuruaz gain, Galtzagorriek 30.000 euroko dirulaguntza izenduna jasotzen du urtero, eta horren bitartez haur eta gazteentzako 65 tailer antolatu ahal izan ditu aurten. Gaur onartu den dirulaguntza gehigarri honi esker beste 35 tailer antolatuko ditu, guztira 100 tailer eskainiz.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Galtzagorri elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten 2018an irakurzaletasuna euskaraz sustatzeko haur eta gazteen artean. Ekimen horren bitartez Galtzagorri Elkarteko profesionalak Euskadiko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroetara joaten dira, irakasleei lantegi praktikoak eskaintzera. Gurditxo batean Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako 40 liburu inguru eramaten dituzte eta hauen bidez landu ditzaketen estrategiez mintzatzen zaizkie irakasleei, hauek haur eta gazteen irakurketaren bitartekari eraginkorrak eta motibatuak bihurtu daitezke.

luz, guztira, 70 saio eskaini ziren EAEko ikastetxeetan, baina beste 100 zentrok izena eman zuten egitasmoan parte hartzeko eta, ondorioz, itxaron-zerrendan geratu ziren. Aurtengo helburua zen saioak eskaintzea itxaron-zerrendan geratu ziren 100 ikastegi horietan, baina aurten onartu den 30.000 euroko dirulaguntza ez da nahikoa izan helburu hori betetzeko. Aurrekontu horrekin 65 tailer eskaini ahal izan ziren, eta gaur onartutako dirulaguntza gehigarria ezinbestekoa da helburua bete ahal izateko. Horrela, guztira, 100 saio eskainiko dira aurten beste horrenbeste eskolatan.

Proiektu honen bitartez hainbat helburu lortu nahi dira, irakurtzeko zaletasuna sustatzearekin lotuta, bai eta euskararen garapenarekin lotuta ere:

- Lehenengo helburua da euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea EAEko haur eta gazteen artean.
- Irakasleen irakurketarako motibazioa ere sustatu nahi da. Irakasleak bihurtu nahi dira haur eta gazteen irakurketaren bitartekari eraginkorrak eta motibatuak. Haur eta Gazte Literaturan adituak direnen eskutik, euskarazko kalitatezko liburuak aurkeztuko zaizkie, formatu literario

ezberdinak nola erabili eta norekin erabili azalduko zaie eta, horrekin batera, irakurtzeko zaletasuna sustatzeko estrategia ezberdinak erakutsiko zaizkie

- Euskararen erabilera sustatutzen da. Ikasleek euskarazko kalitatezko liburu berriak ezagutzen dituzte urtero eta horien inguruan hitz egiten dute haien artean. Ekimena oso baliagarria da euskara menperatzen ez duten gazteek beren maila hobeto dezaten.
- Haur eta gazteek euskara eta euskarazko literatura gozamenarekin lotzen dute. Ekimen honen bitartez haurren garapen emozionala, intelektuala eta afektiboa sustatzen da euskarazko Haur Literaturarekin gozatzen duten bitartean
- Euskarazko Haur eta Gazte Literatura ezagutzera ematea. Proiektu honi esker, hainbat irakaslek bestela ezagutuko ez lituzketen kalitatezko hainbat nobedade ezagutzeko aukera izan ohi dute.
- Ikastetxeak eta ikasleak are gehiago inplikatzeko dira irakurtzeko zaletasuna sustatzeko eginkizunean.
- Udal liburutegien eta eskolen arteko sare-lana bideratzen da, baliabide publiko ezberdinak lotuz haur eta gazteen irakurtzeko zaletasuna sustatzeko bidean.

## Presidencia

### **APROBADAS AYUDAS POR 60.000 EUROS A PROYECTOS PARA LA RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA**

El Gobierno Vasco destinará este año 60.000€ a ayudas para la financiación de proyectos de recuperación de la Memoria Histórica. La convocatoria de estas ayudas se recoge en una resolución de GOGORA, Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos, que hoy ha recibido el visto bueno del Consejo de Gobierno.

Estas ayudas están destinadas a subvencionar proyectos dirigidos a la recuperación de la memoria histórica desarrollados por municipios y demás entidades locales de la Comunidad Autónoma Vasca.

El plazo para acceder a las ayudas se inicia al día siguiente de la publicación de estas resoluciones en el Boletín Oficial del País Vasco y finaliza un mes después de dicha fecha.

Las solicitudes deberán presentarse por medios electrónicos accediendo a la sede electrónica de [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL IVAP INVERTIRÁ 35.000 EUROS EN FORMAR AL PERSONAL DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE EUSKADI

- **Con esta nueva convocatoria de ayudas el Gobierno Vasco afianza su apuesta por financiar la formación del personal empleado de la administración pública**

El Gobierno Vasco, a través del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), invertirá este año 35.000 euros en financiar los planes de formación para el personal empleado en los diferentes organismos autónomos de la Administración General de Euskadi.

Los planes o programas de formación financiados podrán incluir, además de la oferta formativa propiamente dicha, alguna o algunas de las siguientes acciones:

- El diseño y/o elaboración de contenidos formativos.
- El establecimiento de redes de aprendizaje temporales o permanentes.
- El diseño, elaboración y publicación de material docente en cualquiera de los soportes utilizados en formación.
- Estudios relacionados con la evaluación del aprovechamiento, transferencia o impacto referidos a la formación desarrollada por el organismo autónomo.

Las ayudas están enmarcadas en el "[Plan Estratégico de Subvenciones 2019](#)" del IVAP y complementan las ayudas de 125.000 euros para formar a las personas empleadas en la administración autonómica, aprobadas en junio de este año. Los trámites de esta convocatoria se deberán solicitar, consultar y realizar a través de la página web oficial del IVAP [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus).

### APUESTA POR LA FORMACIÓN

Con esta nueva convocatoria el Gobierno Vasco, a través del IVAP, mantiene su apuesta por fomentar y afianzar el establecimiento de planes o programas de formación, sustentados en un análisis o diagnóstico previo de las necesidades formativas de cada entidad.

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### **2,2 MILLONES DE EUROS PARA PROYECTOS DE DESARROLLO LOCAL PARTICIPATIVO EN ZONAS COSTERAS**

